

Vitoria-Gasteizen, 2015ekoaren(e)an, bildu gara, alde batetik, Osakidetzaaren ordezkariak, eta beste aldetik, sindikatuen ordezkariak. Sindikatu horiek ordezkaritza dute Osasunaren Sektore Mahaian. Eta honako hau erabaki dugu:

HITZAURREA

Lanbide Garapena azken 10 urteotan gauzatu izan da Osakidetza. Eta puntu honetara iritsita, beharrezkoa da arretaz aztertzea orain arteko ibilbidea eta haren aplikazioaren ondorioak. Bereziki beharrezkoa da erkatzea lanbide-garapenaren sistemaren helburuak eta praktikan lortu diren emaitzak.

Halaber, 558/2014 Ebazpenaren ondorioz, 1930/2011 eta 1931/2011 Ebazpenen bidez egindako lanbide-garapeneko deialdietan parte hartu zuten pertsona guztiak oraingo lanbide-garapenaren sistematik eratorritako lanbide-aitorpena noiz jasoko zuten zain zeuden, eta zapuzturik ikusi dituzte beren itxaropenak.

Horregatik, oraingo erabaki hau hartzen duten alderdien ustez bada garaia Lanbide Garapenaren eredia sakonean aztertzeko; baina, aldi berean, 2011ko deialdietan parte hartu zuten guztien itxaropenak betez.

Alde horretatik, sindikatuak eta Osakidetza ez daude ados 2011ko lanbide-garapeneko deialdiak bertan behera uzteari dagokionez, ezta 2012ko urtarrilaren 1a eta 2015eko irailaren 30a bitartean aipaturiko deialdietan parte hartu zutenei legozkiekeen diru-kopuruen ordainketari dagokionez ere; dena dela, abenduaren 23ko 5/2014 Legearen 19.6 artikuluaurrekontu-gaikuntzaz baliatuz (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak onetsi dituen Legea), ados daude parte hartzaileei legozkiekeen ordainsari osagarriak ordaintzearekin, 2015eko urriaren 1etik aurrera.

Sindikatuak gordeko dute erreklamatzeko jarraitzeko eskubidea, bai 1930/2011 eta 1931/2011 Ebazpenak indargabetzeko desegokitasunagatik —558/2011 Ebazpenaren bidez egindakoa—, bai lanbide-garapenaren aitorpena eskatu zutenei legozkiekeen diru-kopuruak, 2012ko urtarrilaren 1era arteko atzera-eraginez, ordainketagatik. Erreklamazio-aukeren artean auzibideak eta ekintza sindikaleko bestelako bideak sartzen dira. Edonola, bi aldeek adosten dute 2011ko deialdietako

langileekin zor bat dagoela eta errekonozimendu honek ondorioak izango dituela 2016ko Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

Halaber, alderdiek erabaki dute lantalde bat eratzea, non Osakidetzaaren ordezkariak eta Osasunaren Sektore Mahaian ordezkariak duten sindikatu guztien ordezkariak parte hartuko duten. Lantalde horren baitan Osakidetzaaren Lanbide Garapenaren Sistemaren hurrengo puntu hauek aztertuko dira:

- Talde Profesional ezberdinen arabera soldataren proportzio ezberdinarekin ordaintzea, diskriminazio hori aztertu beharra dago.
- Arreta-jardueraren eta lanbide-ezagutzaren kalitatea neurtzeko erabiltzen diren ebaluazio-iteak aztertzea, objektibotasuna bermatzeari begira.
- Pertsonalaren etengabeko prestakuntza egoki batean eragiten duten faktoreak aztertzea. Batez ere, interesgarria litzateke:
 - Prestakuntza ebaluatzeko sistemak ezartzea, prestakuntzaaren benetako aprobetxamendua ziurtatzeko, kontuan izanik Osakidetzaako langileek garatu behar dituzten ataza guztiak.
 - Osakidetza prestakuntza-eskaintza nahikoa ziurtatu behar die langileei, eta prestakuntza jasotzeko sarbidea berdintasun-baldintzetan izatea bermatu.
 - Lanbide-garapenerako prestakuntzaaren emailak ondo egiaztaturik egon behar dira (unibertsitateak, osasun-erakundeak, elkargo profesionalak eta zientzia-elkarteak).
 - Aldiro-aldiri prestakuntzaaren beharrianak ezartzea, Osakidetzaaren lanbide-kategoria bakoitzeko. Saio horietan eskuratzen diren ezaguerak eta gerora ebaluatuko direnak berberak izango dira.
- Begiratzea zein irakaslanek mereziko duten lanbide-konpentsazioen bat. Nolanahi ere, aurrez aurre ematen ez diren irakaskuntza-saioak aztertu beharko dira, gutxieneko kalitate-irizpideak finkatzeari begira.
- Inplikazio- eta konpromiso-iteak, objektiboki ebaluatzeko modukoak, ezartzea.
- Ebaluazio-irizpide berri bat ezartzea, euskara ikasteko ahaleginak egiten dituztenei saritzearren, eta erabiltzaile euskaldunei arreta euskaraz eman ahal izatearren.
- Lanbide-garapenerako deialdien sistema bat ezartzea, etengabe irekita egotekoa. Horrela, merezimendu berriak edonoiz alegatu ahal izango dira, eta lansarrietan ondorioak islatuko

dira modu etengabea.

Lantalde horrek txosten bat prestatu beharko du 6 hilabeteko epean, gorago adierazitako puntuetan oinarriturikoa. Txosten hori Osasunaren Sektore Mahaira eramango da, negoziazio-esparru horretan eztabaidatzeko eta honen arabera 2016ko urtarilaren 31a baino lehen garapen profesionaleko deialdi berria burutzeko.

Eta ados daudelako erakusgarri, alderdiek sinatu dute ondoko

ERABAKIA

1. Osakidetzaren ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak erabaki dute abenduaren 29ko 1930/2011 eta 1931/2011 Ebazpenen bidez deituriko lanbide-garapenaren prozesuei dagozkien diru-kopuruak abonatzea, 2015eko urriaren 1az geroztik. Horretarako behar diren izapideak burutuko dira, 558/2014 Ebazpenaz etenda geratu baitziren.
2. Sindikatu sinatzaileek legozkiekeen akzioak gordetzen dituzte, eta erabili ahal izango dituzte ustez dagozkien eskubideak erreklamatzearen, nahiz eta agiri honetan jasota ez egon.
3. Bi aldeek adosten dute 2011ko garapen profesionaleko deialdian parte hartu zuten langileekin zor bat dagoela eta berau 2016ko Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Orokorren bidez ordainduko dela.
4. Lantalde bat eratzea, lanbide-garapenaren oraingo sistema ebaluatzeko. Lantalde horrek, urtebeteko epean, txosten bat prestatuko du, Osasunaren Sektore Mahaian aurkezteko, hurrengo puntu hauek oinarri harturik:
 - (a) Talde Profesional ezberdinen arabera soldataren proportzio ezberdinarekin ordaintzea, diskriminazio hori aztertu beharra dago.
 - (b) Arreta-jardueraren eta lanbide-ezagutzaren kalitatea neurtzeko erabiltzen diren ebaluazio-itak aztertzea, objektibotasuna bermatzeari begira.
 - (c) Pertsonalaren etengabeko prestakuntza egoki batean eragiten duten faktoreak aztertzea. Batez ere, interesgarria litzateke:

- i. Prestakuntza ebaluatzeko sistemak ezartzea, prestakuntzaren benetako aprobetxamendua ziurtatzeko, kontuan izanik Osakidetzako langileek garatu behar dituzten ataza guztiak.
 - ii. Osakidetzak prestakuntza-eskaintza nahikoa ziurtatu behar die langileei, eta prestakuntza jasotzeko sarbidea berdintasun-baldintzetan izatea bermatu.
 - iii. Lanbide-garapenerako prestakuntzaren emaileak ondo egiaztaturik egon behar dira (erakunde ofizialak, unibertsitateak, osasun-erakundeak, elkargo profesionalak eta zientzia-elkarteak).
 - iv. Aldiro-aldiri prestakuntzaren beharrianak ezartzea, Osakidetzaren lanbide-kategoria bakoitzeko. Saio horietan eskuratzen diren ezaguerak eta gerora ebaluatuko direnak berberak izango dira.
- (d) Begiratzea zein irakaslanek mereziko duten lanbide-konpentsazioren bat. Nolanahi ere, aurrez aurre ematen ez diren irakaskuntza-saioak aztertu beharko dira, gutxienezko kalitate-irizpideak finkatzeari begira.
- (e) Inplikazio- eta konpromiso-itamak, objektiboki ebaluatzeko modukoak, ezartzea.
- (f) Ebaluazio-irizpide berri bat ezartzea, euskara ikasteko ahaleginak egiten dituztenei saritzearren, eta erabiltzaile euskaldunei arreta euskaraz eman ahal izatearren.
- (g) Lanbide-garapeneko deialdien sistema bat ezartzea, etengabe irekita egotekoa. Horrela, merezimendu berriak edonoiz alegatu ahal izango dira, eta lansarrietan ondorioak islatuko dira modu etengabea.
5. 2016ko urtarrilaren 31^a baino lehen garapen profesionaleko deialdia berria burutzea Osasun Arloko Mahai Sektorialean adostutako irizpide berrien arabera.

Eta ados daudelako erakusgarri honako erabaki hau sinatu dute alderdiek Vitoria-Gasteizen, 2015ekoaren(e)an.